

Elkarrizketa hau Koldo Diaz Bizkarguenaga eta Txabi Landabidea Urresti Etzilarien artean izan genuen, hain zuzen ere inoiz, inola, nolabait, Etzi.pm|n zerbait argitaratzeko edo.

Azkenean, egunen joan zoroak eta twitterriko dinamikak berak (@theindezents bezalako jendea ezin baitugu ilunetan izan) eraman gaitu halako full disclosure bat egitera.

Utopia telesail britainiarra eta The Kingsman blockbuster amerikarraren alderaketa estilistiko-epistemologiko hau ezin atzeratuzkoa zen.




Gerra bat baitaukagu gure artean, eta Euskal Herriak merezi du jakitea non gauden. Grant Morrison gure eskoziar burusoil bizarroak Ikusezinetan galdetzen zuen bezala:

*Which side are you on? Do you know yet?*

**OHAR OSO GARRANTZITSUA: SPOILER-ak nonahi.**

Aspalditik genuen elkarrizketa honen beharra. Zehazki, gure istorioaren hasieratik.



Ekin genion. Momentu bereziaren urduritasuna nabaria zen: “zezakeela” idatzi nahi eta “zitekeela” asmatu.

“Utopia” telesailarekin engaiatu ginen. Twitterren eztabaidatzen hasi eta aurrez-aurre ezagutu ginenean mahai gainean jarri genuen lehen gaia izan zen: zer egingo zenuke? (Zertan ari garen ez badakizu, irakurketa telesailaren bi denboraldiak ikusi ondorengorako utzi beharko zenuke. Hori bultzatzeko, ez dugu “Utopia”ren kokapen bat egingo. Ez dago zergatik. ;-). Hilabeteak pasa ahala gaia ateratzen zen... Kingsman filma ikusi genuen arte. Berriz ere egoera apokaliptiko bera, baina kasu honetan zentzu autoparodiko batean eta ongia eta gaizkia berezita.



ETZI emango den egoera baten inguruan hitz egiteko, Ezipm baino hoberik ez zegoela pentsatu genuen eta horregatik, Twitter bidez gaiaren inguruan hitz egiten, eztabaidatzen eta filosofatzen hasi ginen. Hona gure emaitza.

(Litekeena da irakurri ostean hilketa selektiboak egitearen alde edo jaiotze-tasa oztopatzearen aldekoa izatea, hala bada, gure helburua lortu dugu ☐

### Ongia eta gaizkia bereizten direnean zeinen erreza da gure bizitza...

Hor da interesgarria Utopia (U) Kingsmanekin (K) alderatzea. K-n Samuel L Jacksonek arrazoi bera duen arren



zailago da harekin lerratzea. Agian bere bizi estilo eta aukeratuen aukeraketagatik?



uzt. 14

(K)n errazagoa da: superbilaua ez da bihotz onekoa eta superheroiak txar guztiak akatzen ditu (musika klasikoa ta guzti!)



uzt. 14

Nire ustez (eta hau nahiko jartoa da) egoismo-altruismo eskala batean honela daude gauzak (egoistenetik altruistenera):

1- Samuel L Jakckson eta onepercenterrak Kingsmanen (denak hil, ni ta nitarrak de puta madre bizitzeko).

2) Lancelot Kingsmanen (nik lan egin, klase sozialean gora egin eta status quoa mantentzeko).

3) Jessica Hydetarrak (bizitza arriskatu, status quoaren alde, urte batzuk gehiago bizi dadin gizateria).



4) Sarea (dena eman, bizitza, gizatasuna, zentzu morala, gizateriari gero bat eskaintzeko aukera urrunagatik).



uzt. 14

**... Baina, bizi errealean bezala, uztartuak agertzen direnean zeinen interesgarria da gure bizitza**

etzi.pm  
ETORKIZUNA  
IRAZTEN

Gero, oso interesgarria, kontraesanekin ekitea da. WWWk purismoak akatzen ditu: torturatu dutenekin borrokatu?!?



uzt. 14

Bai, Mr Rabbit biak dira oso interesgarriak. Behin egoera ulertuta, azken ondorioetararte daramatzate haien ekintzak.



uzt. 14

Samuel L Jacksonen agenda bera dute, baina justu kontrako figura irudikatzen dute.



**Teoriatik praktikorako jauzia: zer egin? Nori? Zelan?**

Esan nahi dudana zera da.

(U)n zein (K)n ideia berari etantzun bat planteatzen zaigu: Lancelot eta Wilson Wilson dira erantzun hori.

Bi pertsonaiek egoera ulertzean haien erantzunkizuna ulertzen dute. Ez da hainbeste erabakitzea, baizik onarpena.



Bata zaldun zilarrezko bihurtzen da. Bestea munstro begibakar.

Oso film deterministak dira zentzu horretan, subjektuak ez du ezer era(ba)ikitzen. Asumitu egiten du bere funtzioa.



uzt. 14

(U)-n behin egoeraren kontzientzia hartuta jada baduzu odola eskuetan. Egin ala ez egin, berdin.

Kontzientzia hartzeak elite bihurtu zaitu, eta erabakiarekin bizi behar duzu.

Jessica Hyde-en taldeak ez dio boloari buelta handirik ematen, baina erantzuleak dira baita.



uzt. 14

Egin? Bai. Arazoak. ZELAN: Kontzientzia izatean, Herria kontzientzia hori izan dezan saiatu.



uzt. 14

Horrela, agian, elitea akabo (K)n bezala? Dudak.



uzt. 14

Ez dakit. Filme eta seriearen premisetan kokatuz, hau da, arazoaren diagnostikoa konpartitu gero... zer egin?



uzt. 14

**Erabakiak hartzeko modua: elitea eta Herriaren arteko harremana**

Baina niretzat arazo ideologikoa dena: elite intelektual batek har ditzake hain erabaki sakonak herritar xumeak ezgaitzat hartuz? (U) vs (K)



uzt. 14

Erantzuten hasteko, beste ezberdintasun bat: (K)n eliteak erabakitik kanpo kokatzen dira bunker batean.

(U)-n aldiz abanguardiak erabat bere egiten du erabakia. (problema piloarekin, baina ulertzen didazu)



uzt. 14

## Legitimitate kualitatiboak ematen duen salbuespenaz

(U)n erabakiaren ondorioak eta erabakitzearen ondorioak jaten dituzte.

(K)n berriz erabakitzearen ondorioei muzin eta gainera livin la vida loca bizi.



uzt. 14

Beraz, legitimate "kualitatiboa": egiten baduzu, bizia arriskatzeko prest bazaude, gubkiengoa izan arren erabaki zailak hartu ahal?



\*legitimate (ez da ingelesa. Legitimitate esan nahi nuen ;-)



uzt. 14

(U)rena latza da: gaiztoak ez dira gaiztoak eta gure hobe beharrez ari dira. Diskurso paternalista hori da jasan ezin dudana



uzt. 14

## (Marxen mezua jasotzen dugu) Kontzientziaren garrantzia

Jabe ez direnak, herria, historiaren mataderora.



uzt. 14

(U) rekin sentrazioa "Todo para el pueblo sin el pueblo" da. Lasai txoroak, guk hartuko ditugu erabakiak, ez jabetu, lasai bizi... Edo hil



Aldiz Lancelot Jessica Hyde baino heroi kontzienteagoa dela uste dut. Jessica karismatikagoa da, noski, baina ez du agenda propiorik.



Ihes egin, eraso, ihes egin, eraso, ihes egin...

uzt. 14



Zuk esan duzu, familiagatik eraginda. Bizi guztia zerbaiten kontra aritu hori ezagutu gabe.



uzt. 14

## Badirudi sistemak ezkeraren diskurtsoa irensten duela

Portzieto, Samuel L Jackson da zuk lehen esan duzun bezala "jendea konbentitzen" aritzen den bakarra ;)



Eta "asko" konbentitzen ditu! :D (toma third way!)

uzt. 14

Ikusten! Bide hori landu behar da. ;-)

## Gure Esku Dagoren mezua jaso dugu ere

*etzi.pm*  
ETORKIZUNA

Egia da ere ea zelan demokratizatzen dugun erabakia...

Gure Esku Dago Ft.

Utopia



uzt. 14



EGGED Esterilizazio Globala Gure Esku Dago eta BAT Basektomia Autoeragileak Taldea

uzt. 14

## Ea ba... saia gaitezen irtenbide bat bilatzen...

Nire ustez serieak egoera inposible (baina sinesgarri) bat planteatzen du. Zer egin, amildegira goazenean?

Lau aukera ikusten ditut:

- 1) Ekuazioa ukatu (egoera ez da hori).
- 2) Ezer ez egin.
- 3) Sarera batu.
- 4) Sareari kontra egin.



uzt. 14

1) "Bihar mundua bukatuko balitz, 23 ordu emango nituzke arazoa ulertzen" Einstein  
2) "Ezer ez egitea da biolentoena" Zizek

uzt. 14



bai bai, biolentoena dela ez dago dudarik :D  
(seriearen premisaren baitan, eta Samuel L Jacksonen planean ere :D)

Utopiako etorkizuna Kingsmaneko elizako eszena bezala imajinatzen dut. Belaunaldietan.

uzt. 14



3) "OTAN de entrada NO" X.  
4) "Be water my friend" Bruce Lee

(Ostia! Elizako eszena. HAUNDIA! Eta gainera linyrd skynyrd entzuten)

uzt. 14



The Network: de entrada no. (Pablo Iglesias, 2015)

etzi.pm  
ETORKIZUNA  
IDAZTEN

... ba ez. Ez dugu lortu...

Seguruenik, 3a hartuko nuke. Baina egoera zein den azalduz eta Lanceloten targeta hartuz. [Final Disney]

uzt. 14



Seguruenik, 3a hartuko nuke. Egoera zein den azaldu eta kaosa sortu litzateke. Lanceloten targetera heltzeko sarraskia [Final Grezia]

uzt. 14



Kar kar kar. Fijo.

Niretzat interesgarriena (U)n hori da, nola giza arazoia forzatzen duen, ezinezko erabaki eta metodo batzuk hartzera bultzatuz.

... Ea ba. Bigarren saiakera...



Orduan. Jendea akatu (lasai, Xabi Iglesias, diskurtsoa pulituko dugu :-), baina arazoa nortzuk eta nola hartu erabakia da. Is that right?



uzt. 14

Nik gehiago ikusten dut "zer egin egoeraren larria ulertzen duzunean". Paso? Jendea konbentzitu? Mundua esterilizatu? Denak hil? :D

Guapo dago (U)n momentu batean meteorito zati bat erakusten dutenean, eta diote: honek esan nahi du edozer egin dezakegula.



("total, berdina da" esango balute bezala) :D

uzt. 14

Pasatzean erabakia hartu duzu. Jendea konbentzitu: zaila baina saiatu beharreko bidea.



uzt. 14

Mundua esterilizatu? Dirudunek irtenbidea aurkituko lukete. (Hori da Un min ematen didana: agian galdera gaizki planteatu dago, gero nator)

Denak hil? Tira, norbait utzi beharko dugu. Arazoa: nor? :-)



uzt. 14

### ...Ezta. Eta galdera aldatzen badugu?

Nirezat kontua da denek arazoa logika beretik hartzen dute: demografia.

Eta irtenbidea mugatu dela: egoerarik onenean ere, apokalipsira eraman gaituen arrazoiak ez darrai.



\*ez = hor :-)



uzt. 14

bueno ,bai klaro. Dimensio bakarra kontuan hartuta esaten nuen ;) Zorionez (?) errealitatea konplexuagoa da :D



uzt. 14

Zein da arazoa? Demografia? EZI Bueno, orain bai.  
Baina ez.  
Sakonekoa: giza harremanak, balioak... IDEOLOGIA

uzt. 14

Hori aldatu daiteke? Nola? Ideiarik ez.  
Eta ezin bada aldatu, orduan bai, Metereotioak har  
gaitzala.  
Ta orduan bai, PA-SOI

uzt. 14

Arazoa litzateke, nola liteke zibilizazio suizida bat sortu  
izana?

uzt. 14

Paulo Coelhoen (beste bat zorrorra) errua da: "Zu, bai  
ZU. Zu zara mundu honetako garrantzitsua. Gaur, bai  
GAUR. Bizi gaurko eguna"

uzt. 14

## Galdera aldatuta ezta... Saia gaitzen beste perspektiba batetatik ulertzen

Agian galdera da nola planteatu alternatiba egiazko  
bat agertzen diren 4 "indarrei".

Nolakoa behar luke benetako alternatiba herrikoi  
batek? #alternatibenherrixka?

uzt. 14

Hori da! Baina hori baino lehen, nola planteatu  
alternatiba bat Herriari?

uzt. 14

(U)n momentu baten TB bidez azaldu nahi zuten  
egoera, ezta? Baina WWk ez du egiten.

uzt. 14

Galderak, galderak eta galderak.

Isiltasuna nagusi izan arte. Zure erantzuna behar dugu, [typography font="Cantarell" size="24" size\_format="px"]ZER EGINGO ZENUKE ZUK?[/typography]

Edo hobe esanda, zer egingo duzu ETZI egoera hori ematen denean?

Ikus bideo hau, inspirazio modura: <https://www.youtube.com/watch?v=NXB6sIJSbL4>

## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)